




IHABEN

IHABEN (BASABURUA)

Anjel Aldaz bertsolaria.

– *Etxetik ez datorkio inondik ere afizioa...*

– *Ezta batere, ezta batere, hori etorri zitzaiden neri, pues, gaztetan, pues oñes ikasi orduko, nik berandu artio ez nakin euskeras hitzik ere. Ihabenen, Ihaben da Basaburun herri bat euskeras gutxina hitzeitten dena. Eta ni, hamabi urte nitulaiken joan nitzen, artzai koxkorra, Itxasoa, Itxasoko Zurgine-nean joan nitzen ta han, pues, lenbixko urtetan behiekin ta, zeatzen, behiei kausitten ta pasatzen nun bizie, ta gero artzai joan, ta gero artzai nindabillela, pues, hola, kantue gustatzen zitzaien asko, ta ordun hasi nitzen kantatzen.*

Biño euskera ikasi nun Itxason, zengatik, Ihaben nola erdaldune den, Itxaso dena euskalduna. Ta, nik pixket-pixket, pues, euskera, pues, kariñoa hartu nion ta, geo, han morroi negola, pues, hasi nitzen ta bersoak, bueno ordun bersoak ez asko, biño gero pixket-pixket apizioa sartu zitzaien bersotara.

Ta gero bersolari kanpeonatoak hasi zielaiken, Lekunberrin ta hoitan hasi zielaiken, pues ordun hasi nitzen pixkoat saltsatzen ta geo pixket-pixket, pues, meioratus eo, betire, zerbaitte gehigo ikasis ta holaxe torri da.

Geo suertea izandu nun, lenbixko kanpeonatoa hasi zen zean, Lekunberrin, ta gero Leitzen, ta toki askota kanpeonato askota eramaten tzieten. Ta suertea izandu nun, pues, ongi gelditzea ta ordun ta geo ta afizio gehigo sartu ta holaxe segitzen dot.

– *Bai, Iruñeko finalean aritua zara zu ere, ezta?, Gaiarren.*

– *Hiru finaletan, hiru finaletan aillegatu nitzen. Gogoan dauzkit ongi, ongi tratatzen tzieten gaiñea, zea, bazkaltzea Hiru Erregetako Hotelea eamaten tziguten ta bazkari opiparoa ematen tziguten, ta gero saria ere bai, finaletan geo pixkoat gehixeo ta, majo!*

Guekin aurreneko kanpeonato guzin ibilli zen Bilbaukoa eo, bazen bat, Alfonso Irigoien, oso gizon jatorra ta oso ongi erakusten ziguna. Ta baziren beste batzuk e bai. Geo, maipurun eo, juradukoak bazien Pedro Alemán, gero Ulzurrun... Pedro Ulzurrun, don Pedro Ulzurrun medikue, ta gero beste bat, beste bizpahiru bazien maipurukoak, oso zea...

– *Eta ofizioa emanda, bat hola karabinerua eta bestea kontrabandista eta gisa horretan, ezta?*

– *Bai, bai, sari hortan. Eztakit oañ nola itten duen biño, uste dut igualtsu*

itten duela, biño ordun opizioak ematen zittiguten, ta geo, iliminatuz joaten tzien bezala, geo gauze zalleokuak eta holaxe finalea alleatu, azkenea alleatu artio.

– Eta gustora aritzen zineten kantatzen, gustora kanpeonatoan?

– Ordun ikeagarri, oso, gue poz haundie, ordun apizio haundie zen, jende asko joaten zen gañea, jende asko joaten zen zea hoitaa, kanpeonato hoitaa ta. Pues, maiz zeatzen tzittuten, prestatzen tzittuten ta deitzen zietelaiken, tira!, pues...

– Bai, baina, ez dakit hola mikrofono aurrean eta jende aurrean kantatzea, batzuk izaten dituzten nerbioak eta halakoak, zuk ere, edo?...

– Jainkoai eskerrak ni oso trebea izandu naiz hortan, beñe enaiz ikaratu, «cara» haundie izandu det nik gauz hoitako, iñun ez naiz ikaratu. Klaro, beti izaten da zea pixkat, biño ikaratu beñez, inpresionatu beñez.

– Eta hola entzuleak, jendeak egingo zuen farra ta txaloak eta aplausoak eta denetatik, ezta?

– Denetatik, denetatik izaten tzien, denetatik, denetatik. Oso ongi portatzen tzen jendea.

– Eta zure garaiko beste bertsolari batzuk, Goizueta aldean bazen fama haundiko bat, Xalto ezta? Andrés Narbarte...

– Andrés Narbarte izaten tzien gue etsairik haundina, esan nahi dut, etsaie... ez ... sentidon, biño beti irabazten tziun, ta hua izaten tzen beti hango ollaskoa, printzipala, Andrés Narbarte. Geo izaten tzen Madariaga, ta izaten tzen Perurena, ta hoik. Geo zea haundikoa, fama zeakua zen errazkindarra re, Oreja, Oreja re famatua izaten tzen denboa haitan ta eztait... beste... betire bertsolari saille ibiltzen giñen, klaro, bajoxokuak ere bazien gizon oo..., ya gutxi aittu zienak eta ya zea, biño betire bazien bersolari onak ordun e, bazien bersolari onak.

– Eta gero kanpeonatotik landara, kanpo, arituko zinen zu ere hola tabernan edo herrian edo herrietan, herriz-herri, ezta?

– Kanpeonatos landa? Bai, jaiero herritan ta geo asko kartero nindabillelaiken, pues, ibiltzen nitzen herritan kartak partitzen, ta pestak iristen tzielaiken, pesta guzitan inbitatu printzipalena festetan ta bazkaltzean, ta afaltzean ta, bersoak eta kantuk eta denetatik botatzen giñuzen.

– Izango ziren ere, izanen ziren halako bertsolari batzuk kanpeonatotan eta parte hartzen ez zutenak, biño taberna giroan eta arituko zirenak ere, ezta?

– Bai, bai, saiatzen tzien tabernetan ta asko, biño kanpeonatutan ta presentatzeko etzuten baloreik izaten, etzuten balio.

- Batzuk arituko ziren ardo pixka bat edan ondoren...
- Bai, bai, ordun bai, ordun bersolari asko izaten da tabernan ardoa eaten..., bersolari, denak bersolari...
- Bai, askotan aitzen ttut biño, nik diferentzia aundiz, zautzen det gure kantu estilora oañ aitzen dienera. Oañ beste estilo at dute oaingo gazteak.
- Bai, zuk uste duzu beste estilo bat dutela...
- Bai, bai hala uste ut, klaro, oañ zeatuo da eh?, ilustratuo edo gehigo ikasik, eta mintzatzen akaso gu sartuko giñuzen hobenin bersotan, sartu eztaizkenak ez, biño betire erdi erdera ta... Biño oañ konpletookuak ote dien eo hobeki prestatuak ote dien euskera, bersoa den bezala botatzeko, bai. Orain jartzen ttiote gaie zailleokuak naski, gaie zailleokuak eta. Gue gaiek, bai, guetako franko zaillek zien batzutan biño, oañ nik aittu ttuten zeatan, kanpeonatotan, oaingo gazte hoken kanpeonatotan iruitzen zaizkit zallegokua ote den, bai, beste estilo at ote den.
- Eta, zein zen zure ustez naturalagoa, zeuek egiten zenutena edo gaur egungoa?
- Guetako gurea beti, ji, ji, ji, guetakos... Klaro, nik uste goain zeatuo daola, modernizatu eo, esan nahi dut, eztaikit nola esan, konpletogokoa ote den euskera mintzatzeko moduu o beste, beste zea bat ote den. Guk... bai, euskea aitzen giñun biño euskera ongi mintzatzeko ikasi in behar da aurrena eta falloik in gabe, pues, zeatzen, hitzek behar den bezala, ordun **beltza** esan beharrin **zuri** igual esaten giñun ta betire aditzea eman itten giñun ta al tzen bezala bukatu bersoa.

IHABEN (BASABURUA)

Angel Aldaz, bertsolaria.

Etzetik ez datorkio inondik ere afizioa...

Ezta batere, ezta batere, hori etorri zitzaidan neri, pues, gaztetan, pues, oinez ikasi orduko, nik berandu arte ez nekien euskaraz hitzik ere. Ihabenen, Ihaben da Basaburuan herri bat, euskaraz gutxiena hitz egiten dena. Eta ni, hamabi urte nituelarik joan nintzen, artzai koskorra, Itxasora, Itxasoko Zurginenera joan nintzen, eta han, pues, lehenbiziko urteetan behiekin eta, zertzen, behiei kasu egiten eta pasatzen nuen bizia, eta gero artzai joan, eta gero artzai nenbilela, pues, horrela, kantua gustatzen zitzaidan asko, eta orduan hasi nintzen kantatzen.

Baina euskara ikasi nuen Itxason, zengatik, Ihaben nola erdalduna den, Itxaso dena euskalduna. Eta nik, piskana-piskana, pues, euskarari kariñoa hartu nion, eta gero, han morroi nengoela, pues, hasi nintzen eta bertsoak, bueno, orduan, bertsoak ez asko, baino gero piskana-piskana afizioa sartu zitzaidan bertsotara.

Eta gero bertsolari kanpeonatoak hasi zirelarik, Lekunberrin eta horietan hasi zirelarik, pues, orduan hasi nintzen piska bat saltsatzen, eta gero piskana-piskana, pues, mejoratuz edo, beti ere, zerbait ere gehiago ikasiz, eta horrelaxe etorri da.

Gero suertea izan nuen, Lehenbiziko kanpeonatoa hasi zen, zerean, Lekunberrin, eta gero Leitzan, eta toki askotara, kanpeonato askotara eramaten zidaten (sic). Eta suertea izan nuen, pues, ongi gelditzea, eta orduan, eta gero eta afizio gehiago sartu eta horrelaxe segitzen dut.

– Bai, Iruñeko finalean aritua zara zu ere, ezta?, Gaiarren.

– Hiru finaletan, hiru finaletan ailegatu nintzen. Gogoan dauzkat ongi, ongi tratatzen zidaten gainera, zera, bazkaltzera Hiru Erregetako Hotelera eramaten ziguten (sic) eta bazkari opiparoa ematen ziguten, eta gero saria ere bai, finaletan gero piska bat gehixeago, eta majo!

Gurekin aurreneko kanpeonato guzian ibili zen, Bilbokoa edo, bazen bat, Alfonso Irigoien, oso gizon jatorra, eta oso ongi erakusten ziguna. Eta baziren beste batzuk ere bai. Gero, mahaiburuan edo, juradukoak baziren, Pedro Aleman, gero Ultzurrin... Pedro Ultzurrin, don Pedro Ultzurrin medikua, eta gero beste bat, beste bizpahiru baziren mahaiburukoak, oso, zera...

– Eta ofizioa emanda, bat hola karabineroa, eta bestea kontrabandista, eta gisa horretan, ezta?

– Bai, bai, sari horretan. Ez dakit orain nola egiten duten baina uste dut

igualtsu egiten dutela, baino orduan ofizioak ematen zizkiguten, eta gero, eliminatuz joaten ziren bezala, gero gauza zailagoak, eta holaxe finalera ailegatu, azkenera ailegatu arte.

– Eta gustora aritzen zineten kantatzen, gustora kanpeonatoan?

– Orduan ikaragarri, oso, gure poz handia, orduan afizio handia zen, jende asko joaten zen gainera, jende asko joaten zen zera horietara, kanpeonato horietara eta. Pues, maiz zeratzen zituzten, prestatzen zituzten, eta deitzen zidatelarik, tira!, pues...

– Bai, baina, ez dakit hola mikrofono aurrean eta jende aurrean kantatzea, batzuk izaten dituzten nerbioak eta halakoak, zuk ere, edo?...

– Jainkoari eskerrak ni oso trebea ¹ izan naiz horretan, behin ere ez naiz ikaratu, «cara» handia izan dut nik gauza horietarako, inon ez naiz ikaratu. Klaro, beti izaten da zera piskat, baina ikaratu behin ere ez, inpresionatu behin ere ez.

– Eta horrela entzuleek, jendeak egingo zuen farra ta txaloak eta aplausoak eta denetatik, ezta?

– Denetatik, denetatik izaten ziren, denetatik, denetatik. Oso ongi portatzen zen jendea.

– Eta zure garaiko beste bertsolari batzuk, Goizueta aldean bazen fama handiko bat, Xalto ezta? Andres Narbarte...

– Andres Narbarte izaten zen gure etsairik handiena, esan nahi dut, etsaie..., ez... sentidoan, baina beti irabazten zigun, eta hura izaten zen beti hango oilaskoa, printzipala, Andres Narbarte. Gero izaten zen Madariaga, eta izaten zen Perurena, eta horiek. Gero zera handikoa, fama zerakoa zen errazkindarra ere, Oreja, Oreja ere famatua izaten zen denbora haietan eta ez dakit... beste..., beti ere, bertsolari saila ibiltzen ginen, klaro, bajoxeagoak ere baziren, gizon oo..., ia ² gutxi aritu zirenak, eta jada, zera, baina beti ere, baziren bertsolari onak orduan ere, baziren bertsolari onak.

– Eta gero kanpeonatotik landara, kanpo, arituko zinen zu ere hola tabernan edo herrian edo herrietan, herriz-herri, ezta?

– Kanpeonatoz landa? Bai, jaiero herrietan eta gero asko kartero nenbilerarik, pues, ibiltzen nintzen herrietan kartak partitzen, eta festak iristen zirelarik, festa guzietan inbitatu printzipalena, festetan eta, bazkaltzean eta, afaltzean eta, bertsoak eta kantuak eta denetatik botatzen genituen.

– Izango ziren ere, izanen ziren halako bertsolari batzuk kanpeonatotan eta parte hartzen ez zutenak, baina taberna giroan eta arituko zirenak ere, ezta?

– Bai, bai, saiatzen ziren tabernetan eta asko, baino kanpeonatoetan eta presentatzeko ez zuten balorerik izaten, ez zuten balio.

(1) Ausarta.

(2) Anitzetan erderazko «ya» izaten da, bertze zenbaitetan berriz «kasik» hitzaren baliokidea.

– Batzuk arituko ziren ardo piska bat edan ondoren...

– Bai, bai, orduan bai, orduan bertsolari asko izaten da tabernan ardoa edaten..., bertsolari, denak bertsolari...

Bai, askotan aditzen ditut, baina nik diferentzia aunditz ³ ezagutzen dut gure kantu estilora, orain aritzen direnara. Orain beste estilo bat dute oraingo gazteek.

– Bai, zuk uste duzu beste estilo bat dutela...

– Bai, bai, hala uste dut, klaro, orain zeratuago da, eh?, ilustratuago edo gehiago ikasiak, eta mintzatzen akaso guk sartuko genituen, hoberenean bertsotan, sartu ez daitezkeenak ez, baina, beti ere, erdi erdara ta... Baina orain konpletoagoak ote diren edo, hobeki prestatuak ote diren euskara, bertsoa den bezala botatzeko, bai. Orain jartzen dizkiete gai zailagoak noski, gai zailagoak eta. Gure gaiak, bai, guretako franko zailak ziren batzuetan baina, orain nik aditu ditudan zeretan, kanpeonatoetan, oraingo gazte hauen kanpeonatoetan iruditzen zaizkit zailagoa ote den, bai, beste estilo bat ote den.

– Eta, zein zen zure ustez naturalagoa, zeuek egiten zenutena edo gaur egungoa?

– Guretako gurea beti, ji, ji, ji, guretakoz... Klaro, nik uste orain zeratuago dagoela, modernizatuago edo, esan nahi dut, ez dakit nola esan, konpletoagoa ote den euskara mintzatzeko modua edo, beste, beste zera bat ote den. Guk... bai, euskara aditzen genuen baina euskara ongi mintzatzeko ikasi egin behar da aurrena, eta fallorik egin gabe, pues, zertzen, hitzak behar den bezala..., orduan **beltza** esan beharrean **zuri** igual esaten genuen, eta beti ere aditzera eman egiten genuen, eta ahal zen bezala bukatu bertsoa.

(3) Aunitz; anitz; asko.